

# GIZARTE-ASISTENTEAREN BETEKIZUNA

Honako artikulua honen helburua Pavia-ko udalerrian eta dozenerdi bat urtetan egin den esperientziaren berri ematea da. Esperientzia hau ulertzeko funtsezkoa da jakitea 1979. urtean konpetentzia asistentzialak Estatuaren eskuetatik erakunde lokalera igaro zirela eta ENAOLI, GESCAL, ECA, Grazia eta Justiziako Ministraritza eta abar bezalako erakundeetatik pertsonala sartu zela italiar estatuko udaletan. Eta horrela, piskanaka aurretik zeuden bost asistente moetatatik hamabi izatera igarotzen dela egoera. Aldi berean, sektoreka lana egitetik (adineko, adin txikiko, ezindu eta abarrekin) auzategietan lan egiteko era desdiratu batera igarotzen da, eta honela auzategiko gizarte-asistentearen figura indartzen da populazioak bere osotasunean dituen arazo guztietarako erreferentzi puntu gisa.

## Asistente balioanitza

Egoera honek berekin dakar asistentea «balioanitz» bezala ikustea, eta erresistentziak izan ditu jardueran eta neurri bateraino justifikaziorik ez duten kritikak jaso ditu. Hasteko esan beharra dago ez dagoela auzitan jartzerik oinarritzko erreferentzi puntu asistentzial baten premia, bere osotasunean errealitatea ikusiko duena eta ez zatikaturik iraganean bezala. Halere, begibistan dago, badagoela arazorik orokortasun hau sakontzeak eta espezialtzeak eskatzen duen premiarekin uztartzeari dagokionean. Zentzu honetan, nabarmena da zerbitzuen

eskaintzaileen eta erabiltzaileen aldetik dauden interesa.

1983. urtean erabaki batzu hartu ziren gizarte-asistenteak izan behar dituen betekizunei buruz eta zerrenda hau egitean bereziki azpimarratu zen banakako zerbitzuen erabilera ez dela gizarte-asistenteak kontutan izan behar duen alderdi bakarra. Paviako udalerrian 1985ean izan dituen eskuhartzeak alor sozio-asistentzialean, premiazko egoera indibidual eta familiarrei erantzunez, guztira 1.436koa izan zen (adinekoak 81, adin txikikoak 388, ezinduak 149, helduak 188). Esan behar da une honetan 12 asistente zeudela, nahiz eta erregio-standardak 17 aurrikusirik zeuzkanean (bost mila biztanleko gizarte-asistente bat). Esan behar da, halaber, adinekoen kasuan gizarte-asistenteak berak bakarrik diagnosiak eta tratamendu-planak egiten zituen bitartean, beste sailetakoekin aritzeko laguntza teknikoaz baliatzen zela. Alderdi soziala eta sanitarioaren arteko integrazioa beti gertatu da, nahiz eta era formalizatuan ez izan, gutxienez ama-haurra, osasun mentala, toxikoatxikimendua eta ezinduen sailetan. Baina batez ere kontsultorio pediatriko eta ginekologikoan hertatu da inon baino harreman estuagoa espezialisten eta oinarriko operadoreen artean.

## Gizarte-asistenteen betekizun nagusiak

Lehen aipaturiko betekizunen zerrendaratzean hiru jotzen dira gizarte-asistentearen betekizun nagusitzat:

1) Alor sozio-asistentzialeko erabil-tzaileei laguntza eskuratzea.

1) Lurraldeko gizarte-arazoan ikerketa eta estudioak burutzea.

3) Batzorde sozio-asistentzialei, gestio-komiteei eta partaidetzazko organis-mo guztiei laguntza eskaintzea.

Lehen egitekoan ez da sekretaritzak lana soilik sartzen, baizik eta garrantzi handia ematen zaio beharzaile epidemiologikoaren zeregina betetzeari lurraldeko ekipoa-rekin lankidetzan.

Ikerketa lanari dagokionean, asistente bakoitzak bere auzategian eta bitarteko urriekin egiten dituen banakako ekintzez gain, maila zentrolean azken urteotan ondoren aipatuko ditugun ikerketa hauek burutu dira, zenbait kasutan adituen laguntza ere tarteko izan delarik:

— **adinekoen mailan** era desberdinetara laguntza hartzen duten udalerriko adineko guztien zentsua egin da et aberoni esker eskuhartze-hipotesiak egin ahal izan dira populazio-zerrenda honi dagokionean, beste toki batzuetako esperientziak kontutan izanez.

— ikerketak adinekoek garraio publikoak nola hautematen eta erabiltzen dituzten eta gizarte-mailan baliagarriak diren ekintzak burutzeko zer prestamen duten. Ehun pertsona baino gehiagoren datuak bildu dira eta berauen ekintzak bideratu dira.

— **ezinduen mailan:** adinekoekin egin den ikerketa bera garraio publikoak erabiltzeari dagokionean eta ondorioz zerbitzu berezien sail bat abian jarri ahal izan da.

— **adin txikikoengan** buruturiko borta: eskola eta gizarte-mailako operadore guztiei galde-zerrenda bat banatu zaie eta 800 erantzun jaso dira fenomeno hau lekuko pribilegiatuek nola hautematen duten erakusten dutenak.

— adin txikikoek obligaziozko eskolaroan ageri duten desmoldakuntzari buruzko ikerketa Geriza-antolamenduekiko lankidetzan.

— **gazteei buruzko ikerketa** periferiako bi auzategitan berauen premiak, itxaropenak, interesak eta denbora librearen sailean dituzten eskariakezagutzeko.

Azken finean, abian dago ikerketa handi bat adinekoen populazioaren baitan (populazioaren % 1 hartzen du eta 1.000 pertsonari dagokie) berauen gizarte-errealita-

teari, berauen premia aitortu eta ez-aitortuei eta dauden edo ez dauden erantzunei buruzko datuak izateko. Alor asistentziala, sanitarioa, olgetazkoa eta abar besarkatzen ditu.

Kontutan hartzen bada gizarte-asistentaren egitekoen artean dagoen beharzaile epidemiologikoa izatea ere, lehentasuna eman behar zaio ikerketa-tresnak bagaia profesionalean sartzeari. Gizarte-asistenteari eta lurraldeko beste operadoreei dagokie maila politikoan seinalatzea sortzen ari diren arazoak, lehentasunen aukera lehenbailehen egin ahal izateko. Eta seinalatze hau zenbat eta datu eta agerpen objektibo gehiagoz sendotua izan, hainbat eta sin-esgarriagoa eta eragingarriagoa gertatuko da inpresio pertsonalean eta kasuistika mugatuan oinarritzen denaren aldean.

Gizarte-asistentearen eginbeharretako bat «arriskuaren mapa» deitua egiten laguntzea da, auzategietako batzorde sozio-sanitarioei, zerbitzu publikoetako batzordeei eta zonako antolamendu partaidetzazko guztiei laguntzen aritzeaz gainera.

— Auzategietako batzorde sozio-sanitarioen eta gestio-batzordeen arteko harremanak formalizaturik geratu dira berariazko erregelamenduetan (nahiz eta berrazterketa aldian egon), aldiz, partaidetzazko antolamenduekiko harremanak operadore bakoitzaren esku utzi dira. Garrazizkoa da gizarte-asistenteek solaskide muntazkotzat antolamendu hauek har ditzaten, izan ere banakako zerbitzu-erabiltzaileei bezalaxe informazioa eskaini, eta hazten eta heltzen lagundu behar baitaie, zeinek bere helburuak lor ditzan.

Aipaturiko beteklizun-zerrendak gizarte-asistenteen lan-atribuzio posible guztiak xehetarik dauzka. Bai kantitatean eta bai kalitatean, eskuhartzeak oso desberdinak dira lurralde bakoitzeko errealitateak aski desberdinak izan baitaitezke, eskariak aldakorak eta eskaintzari lotuak.

### Autonomia erregulatua

Aukera honek operadore bakoitzaren autonomi maila baieztaturik uzten du, baina zuzenkariak sartzen dira erregelamendu bakoitzean. Paviako udalerriko asistenteek honako zerbitzuen gestiorako erregelamenduak burutzen parte hartu dute:

— Ekonomi asistentziaren erregelamendua.

— Etxerako asistentzien erregelamendua.

- Adinekoentzako gizarte-zentruen erregelamendua.
- Aterpetxeen erregelamendua.
- Adin txikikoen aloiamendu-Komunitateen erregelamendua.
- Gizarte-hezkuntzazko zentruaren erregelamendua.
- Famili zaindaritzaren erregelamendua.
- Lan-auresarbiderako zentruaren erregelamendua.
- Lotoki publikoaren erregelamendua.

Erregelamendu hauetako bakoitzean ageriki esaten da zer eginkizun duen gizarte-asistenteak; lehendabiziko bietan gizarte-asistentea ardatz bihurtzen den bitartean, gainerakoetan bigarren mailakoagoa da eta lurraldeko beste zerbitzuekiko lotura-egile gisa aritzen da batipat... Asistentea ez da teknikari neutral bat eta are gutxiago profesional libre bat.

Ulertu beharra dago gizarte-asistenten betekizun eta papera estuki loturik daudela nazio eta lurralde-mailako politika asistentzialaren helburuekin.

Baldin eta politika asistentzialaren helburuak, gure kasuan gertatzen denez, marjinazioa gaingitu eta erakundetzea lortzeko borroka bezala ulertzen badira, aterpetuei aukerak bilatzea, ezbeharrak eta patologia prebenitzea eta integraziotik pasatzen diren soluzioak bilatzea eta abar, asistentearen eginkizuna ez dago zerbitzuen arima femenino bezala, zerbitzuak gizatiartzean dituen bezala, aingeru ona edo otso gaiztoaren gisara hartzerik, erabiltzailearekin edo egiturarekin zeinekin identifikatzen den ikusita.

Hemendik sortzen da helburuak eta metodoak bakoitzu beharra, norbere egintza gero eta hobeki dokumentatzearen ardurarekin. Eta hain zuzen ere honetan bereizten dira profesionalaren eta borondatezkoaren lanak: proiektutasuna eta egiaztasuna dira lehenaren ezaugarriak eta horrela neurtu behar da haren profesionaltasuna.

Egia da ez dela batere erraza berezteko zerbitzuen sustapen eta gestioan zenbat zor zaion asistentaren lanari eta askoz gutxiago produktibitatea neurtzea, eta zer dagokion maila politikoari eta maila teknikoari. Baina barreneko hipotesia da beste maila **horiek** ere izan dezaketela eta behar

duela gizarte-asistentearen ekarpenaren eragina.

Zeregin-krisiak, frustrazioak, motibazio-eroraldiak eta oldar idealak, zerbitzuen buruzko tirandura politikoak eta ongizatezko gizarteari atergabe kritikak egiten zaizkioneko une honetan baliatsua gerta liteke ikuspegi profesional batetik zerbitzuen aldaketa eta bilakaerak birpentsatzea.

Ikusi dugu gizarte-asistentea funtsean baliakide edo errekutso publiko zein pribatuaren negoziatzaile bat dela Berauen artean borondatezkotza jartzen da lehen postuan.

### Borondatezkoekiko esperientziak

Aurreko urteetan ere egin izan dira borondatezkoak erabiliz esperientzia interesgarriak alor desberdinetan, ezinduei laguntzeari eta etxerako zerbitzuak eskaintzeari dagokionetan, baina 1985. urtetik hasita oso inizatiba esanguratsuak burutu dira borondatezkoentzat formazio-informaziozko ikastaldi bat antolatu zenetik eta ondorioz borondatezkoaren udal-kontsultategi bat antolatu zenetik; une honetan 35 bat organismo daude beronen barruan. Aurretik gon bazeuden talde eta elkarte zentsatuez gainera, borondatezkoan hutsean oinarrituriko antolamenduei bizitza ematen saiatu dira asistenteak. Honela ondorengo batzordeak sortu dira:

- Gaixoen defentsarako batzordea (gero gaixoen eskubideen tribunala);
- farmakomenpekotasunaren aurkako batzordea (gero arte eta ofizioen kooperatiba bihurtu dena);
- adin txikikoen eskubideen batzordea;
- borondatezkotza-elkarteen koordinamendua;
- gartzela-lurraldea batzordea.

Gizarte-asistenteei lankidetzan estuan aritzeko eslatu zaie beren autonomia duten baina nolabait beren ekintzengatik udal zerbitzuei loturik dauden antolamendu hauekin. Aurrerago aipaturiko batzorde horietatik gerora zerbitzu garrantzizkoak sortu dira, hiri-zerbitzuen sareetan ez zeuden baina aspaldidanik nabarmenak ziren eskakizunei erantzuten dietenak.

Era honetara, gaixoen eskubideen batzordetik oraindik orain gaixoen, eskubideen tribunala sortu da eta beronen helburua auzibideak behar direnean erabiltzeko sakonketak eta azterketak egitea da.

Farmakomenpekotasunen aurkako batzordearen eraginez «arte eta ofiziotako» kooperatiba bat sortu da, eta toxikoa-tekientzat ezezik oso laguntza bikaina eskaitzen du ezindu, gartzelaratu eta sozialki ahulak diren guztientzat.

Adin txikikoen batzordetik kanpaina bat sortu da gerizaketaz sentikortasun bat sortertzeko eta deserakundetzearen ondoren aukero berriak bilatzeko. Ezinduentzako batzordeari esker, traba arkitektonikoak kentzeko ekintza bat antolatu da. Alkolismoaren aurkako batzordetik alkoholikoak eta berauen senideak tratatzeko terapi taldeak sortu dira, bata autogestiozkoa eta bestea udal operadoreak gidatua. Eta azkenik, gartzela batzordetik lehendabiziko aldiz gartzela kanporantz ireki duten iniziatiba batzu sortu dira.

Adibide hauek esanguratsuak eta interesgarriak dira erabiltzaileak ekintzaratu direlako ezezik familiartekoak ere proiektuan sartu direlako, protagonista paperak hartuz, eta honek zeresan handia du toxikoa- txikien, ezinduen eta alkoholikoen kasuan. Alor hauetan talde irekita bat izatea, operadoreak, borondatezkoak, erabiltzaileak, senideak eta abar, banakako hurbilketak baino askoz etekintsuagoa gertatu da eta antzekoen arteko solidariotasuna oso tresna terapeutiko garrantzizkoa dela ikusi ahal izan da, eta operadore bakarraren aldean, nahiz eta oso espezialdua izan, askoz fruitukorragoa.

Baldin eta teknikariaren paper eta betekizuna, normalean ezin barteztuzkoak direnak, murrizten badira eta erabiltzailearen eta inguruko beste eskuhartzzaileen kontrolpean jartzen badira, orduan ahalegin guztia gizarte-gestioan ezarriko da eta partaidetza azpimarratuko da. Langile-mugimenduak dagoeneko egiaztatua du langileen osasunari dagokionean, talde homogenoa dela oinarri-antolamendua egokiena teknikariekin lakidetzan aritzeko; oinarri-taldean, premia funtsezko erreal eta subjektiboen kontzientzia errazteko arau eta tresnekin, taldekide bakoitzari bere erabakimenaz jabetzeko aukera eta ondorioz hautapen egokiak egiteko eskubide utzezina onartuz. Erraz alienatzen da norbera zapalkuntza, gezurra eta isolamenduaren bitartez. Elkarrekiko mistifikaturik gaude eta zapalkuntza leku jakinetan erabiltzen dugu: soroslea, biktima, pertsegitzailea. Landiketza kolektiboaren bitartez soilik lagun diezaiokegu elkarri alienazioa gainditzeko. Taldeak iraunkortuz gero agresibitatea sendotzen duten paper horiek bere kideegan identifikatzen laguntzen du aldizka.

Soroslea biktima iruditzen zaion hari beti laguntzeko presta dagoen hura da eta egin beharko ez lituzkeen gauzen erdiak egiten ditu eta biktima bere paperean iraunkotzera jotzen du. Biktima, aldiz, neurri batean indarrrik gabe sentitzen delarik eta egin ditzakeen gauzen erdiak ere egiten ez dituelarik, sorosle baten bila joaten da lasterka bizian. Biak, biktima eta soroslea, elkarrekiko pertsegitzaile bihurtzen dira. Pertsegitzaileak kanpora botatzen du bere amorru guztia irain, metafora, botere-joku eta abarren bitartez; normala izaten da gairaisika eta mehatxuka hastea esanez «nik zure alde egin dudana guztiaren ondoren».

### Talde-jardueraren abantailak

Talde-partaidetzak erabiltzen dituen teknikak funtsean honako hauek dira:

- Gero eta premia askatzaile gehiago sortzeko gaitasuna, norbera pertsonago sentituz doan neurrian (ez norbere burua menperatzeko indartsun baizik eta bere burua askatzeko).
- Pertsonak biziki errespetatzen dituen hurbilketa-modua beren denbora, beren esperientzia, beren bizipen eta beren balorazioei dagokienean.
- Bakoitzarentzako helburua da beti egoki sentitzea ez integrazio sozialen arabera, baizik eta bere premia esistentzial eta subjektiboekiko egoki eta korente sentitzen delako, izan ere aseak izatea eskatzen duten premiak baitira eta ez ezkutatuak eta ukatuak.

Eta integritate subjektibo honen ondoren berehala dator norbere ongia, norbere osasun mental eta fisikoa, norbere ongizatea hautatzeko ahalbidea.

Egia da badaudela zailtasun eta eragozpenak operadore profesionalen eta borondatezkoen artean aritzeko, alderi biek dituzten aurreritziengatik. Eta ukaezina da bai orain eta bai etorkizunean harreman estuak beharko direla bi errealitate hauen artean eta elkarrekin lankidetzan aritzeko derigorrazkoa izango dela helburuak, desberdintasunak eta antzekotasunak argi eta garbi edukitzea.

**(DOPO IL D.P.R. 616 E LA LEGGE 833; QUALE RUOLO PER L'ASSISTENTE SOCIALE? Marta Ghezzi-ren artikulua gainean X.Mendiguren buruturiko itzulpen moldatua.) LA RIVISTA D'SERVIZIO SOCIALE, Anno XXVII, n° 2 ekaina 1987.**